

Donostian, mila bederatzireun eta berrogetamalaugarren urteko Azilaren ogetazazpian. Ekauta Jauregian egiten dau Euskaltzaindiak il oneri dagokion batzara. Maipuru, Etxaide jauna. Batzarkide, Irigarai, Mitxelenata Oleaga Euskaltzainak, eta Lojendio ta Arrue, euskaltzain-ordeak. Villasante euskaltzainak ezin etorria iragarri dau.

Asiera, araudizko otoitzaz egin da.

Gero lenurreko batzar-agiria irakurri da ta ao-batez onetsia izan da.

Lojendio ta Arrue euskaltzain-orde bariak ondo etorria emoten yake. Bitzuk darantzue, euren arrerea dala-ta eskarrena barriro erakutsiaz eta Euskaltzaindiarentzako dagokien eta al daben laguntasun osoa eskiñirik.

Oleagak jakin arazten dau, **Euskera** Euskaltzaindiaren gutuna argitaratzeko baimena eskatu dala.

Gero aratu dira sariketara bidalduko lan batzuk, eta Irigaraien asmoz erabagi da, Bidasoz andiko aldeko euskaltzainak gai oretzaz emengo aldetik zer jazo dan esatea ta andiko aldean ezer gerta dan itantzea.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburu-ordea
A. Irigaray

Zadorlaria
Nazario Oleaga